

Utziko didazue tarte bat eskerrak emateko. Lehendabizi, esan nahi dizuet sekulako ohorea dela niretzat Eurobasqueren sari hau jasotzea.

Une honetan, aita zena ekarri nahi dut gogora. Langile xume bat zen; gogor lan egindakoa, eta gazteegi hildakoa. Harro egongo zen gaur hemen zuekin, halako tokian. Ama bai, hemen duzue, bera ere makina bat lan egindakoa da; eskerrik asko, ama, emandako guztiarengatik. Eta eskerrik asko zuri ere, Edorta; zu zara nire sostengua eta akuilua.

Aitortuko dizuet sari honek poz berezia ematen didala; uste dudalako, neurri batean, aitortzen duela Berrian egiten dugun ahalegina Europako Batasunaren eta Europako herrien inguruko gaiak lantzeko. Ez dugu beti asmatuko, eta beharbada, ez dira gai irakurrienak izango egunkarian... Ez dira... Egia da ere, herritar askori urrunak zaizkiela Europako Batasunaren kontuak. Baina, jakinda kontu horiek euskal herritarren bizitza eta etorkizuna zenbateraino markatzen duten, gu saiatzen gara irakurleak ahalik eta ongien informatzen.

Anekdotak bat kontatuko dizuet, azaltzeko zein den nire jarrera Europako gaiei heltzerakoan. Europako Batasunak 60 urte bete zituenean erreportaje baterako hainbat eragileri iritzia eskatu genien. Galdetu genien, besteak beste, zertarako izan zen ona Europako Batasuna. Eta batek esan zuen: «Ez diogu ezer onik ikusten». Deigarria egin zitzaidan... Ezer ez? Ezertxo ere ez? Dena den, hori esan zuenak, bere burua Europako proiektuan ikusten zuen, Batasunak norantz joan behar zuen galdetu genionean.

Eta galdera bera erantzun zuen nekazarien ordezkari sindikal batek Lapurditik. Zertarako izan da ona Europako Batasuna? Eta nekazariak aipatu zuen, garai batean zenbateraino izan ziren erabakigarriak Europako nekazaritza politikak euskal mendialdeko artzaintzat eta nekazariarentzat. Hori bai, oso kritikoa ere bazen azken aldiko nekazaritza politikekin.

Eta hori da Euskal Herria, iritzi eta errealitate desberdinak, adierazpen kategorikoak eta askotan, baita ere Europako gaiei buruz, ezagutza falta. Oso kontuan hartzen dut hori gaiak lantzerakoan; beti gogoan, orain Europaz ari garela, egitateak eta ideiak gauza konplexuak direla.

Prentsako kazetarion lana, nire uste apalean, konplexutasun hori irakurgarri bihurtzea da. Ez da helburu makala, baina saiatzen gara. Eta baita ere esan nahi dizuet, gainera, lanbide hau malkarragoa dela euskaraz jarduten duten kazetariarentzat. Bioakie haiei sari honen eskaintza: euskaraz lan egiten duten prentsako langile, lankide, xumeei.

Eta Eurobasque, eskerrik asko, bihotzez.